

Groseko ostalaritza establezimenduak, Donostiako aste nagusian
Gros auzoko Katalunia Plazan ezartzen den Sagardo Azokaren kontra

Azoka gatazkatsua

BIGARREN URTEZ, Gorenak Sagar-dogile Elkartek Sagardotegi bat ezarri du Donostiako Aste Nagusian Gros auzoko Katalunia Plazan. Ostalariek begi txarrez hartu duten ekimena izan da hau Aste nagusiko festak irrikaz hartzen baitituzte beraien tabernak betetzeko asmoarekin.

2012. urtean ezarritako azoka-sagardotegiak zazpietetatik aurrera funtzionatu zuen, bertan afariak emanez. 2013. urtean, aldiz, eta ez dakigu ze arrazoiengatik izan den, gure ustez kulturala ez den beste arrazoi bat, aipatutako plazan ezarritako karpa sagardotegi honek, bazkari, pinxo, merienda eta afariak emanez

funtzionatu du.

Data seinalatu hauetan, Donostiako Aste Nagusian, honelako kompetentzia sortzen duen instalakuntza bat ezartzearen iritzia jakiteko, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartek, behin festak bukatu ondoren, inkesta bat egin zuen Gros auzoko 29 ostalaritza establezimenduetan. Emaizak eztabaidagai-ezinak dira benetan.

Inkesta pasatako taberna eta jatetxeen %79ak uste du Azoka hau ezartzeak ez diela onurarik egiten eta ez dituela azoka honek beren establezimenduetara bezeroak erakartzen. Inkesta pasatako 29 establezimenduetako %64ak uste du Sagardoaren azokak beren

establezimenduari kalte egin diola, %7ak uste du onurgarria izan dela eta azkenik %29ak komentzen du ez duela ez efektu positiboa ez negatiboa izan beraien negozioetan.

Azokaren etorkizunari buruz galdetzean, galdetutako %71ak azaltzen du ez duela azoka berriz Gros auzoko Plaza Katalunian ospatzerik nahi; %11ak aldiz errepikatzearen aldekoak agertzen dira.

Hauk dira inkestatik atera ditugun datu printzipalak. Horietaz guztiaz gain, egindako inkestak hainbat establezimenduk eginda-



ko proposamenak ere jasotzen ditu. Horiek Donostiako alkateari zuzendutako kexa formal bat egitea proposatzen dute. Beste batzuen aldiz, lehiakortasun desleial hau egiten dutenen kontra oraindik eta neurri zorrotzagoak aplikatzearen aldekoak dira.

Ikusi daitekeen bezala gehien-goia honelako ostalaritza ekintzen kontra dago, sektoreari kalte egiten dion lehiakortasun zuzen bezala ikusten dutelako. Hala ere ostalariek adierazi dute honelako ekintzak Aste Nagusia ez den beste garai batean egin beharko liratekeela. Data horiek ostalaritza sektoreko establezimenduen ekonomiarentzat klabeak baitira.